


Euskal AEko BPGk elkarren ondoko zazpi hiruhileko daramatza hazkuntzekin; 2022ko lehen hiruhilekoan % 1,0 hazi da

2021eko hiruhileko berarekin alderatuta, BPGren hazkuntza % 5,7koa izan da eta enpleguarena, % 5,0koa

Euskal AEko barne-produktu gordina (BPG) % 1,0 igo da 2022ko lehen hiruhilekoan, hiruhilekoen arteko terminoetan; hala, bada, elkarren ondoko zazpi hiruhileko daramatza hazkuntzekin, Eustaten datuen arabera. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, urte arteko hazkuntza % 5,7koa izan da.

Enplegua, denbora osoaren baliokide diren lanpostuen terminoetan neurtuta, bestalde, % 0,9 igo da lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; alegia, % 5,0ko igoera izan du, 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Estimazio horiek haiek prestatzean eskuragarri egon den informazio ekonomiko guztia hartzen dute kontuan, eta Eustaten 2022ko apirilaren 25eko *Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenean* adierazitako hazkuntzak egiaztatzen dituzte.



Euskal AEko BPGren % 5,7ko hazkuntza –urte arteko terminoetan– Europar Batasunerako, Eurogunerako eta Estatu Batuetarako zenbatetsitakoaren (% 5,2, % 5,1 eta % 3,5, hurrenez hurren) gainerik dago. Espainiako ekonomiaren kasuan, bestalde, hazkuntza-estimazioa handiagoa da urte arteko konparatibian (% 6,4), baina, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hazkuntza-erritmoa moderatuagoa da (% 0,3).

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek, lehen sektoreak izan ezik, hazkuntza positiboak izan dituzte, urte arteko terminoetan, 2022ko lehen hiruhilekoan.

Lehen sektorean balio erantsiaren uzkurdura % 1,8koa izan da, termino errealetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, 2021eko azken hiruhilekoan zenbatetsitakoa baino % 15,0 handiagoa izanik ere.

Industriaren sektorea bizkortu egin da urteko lehen hiruhilekoan, bai urte arteko terminoetan, bai hiruhilekoen arteko terminoetan. Sektoreko jarduera aurreko urteko lehen hiruhilekokoa baino % 6,5 handiagoa izan da eta, aurreko hiruhilekoaren aldean, % 3,5 egin du gora. Manufaktura-industriaren kasuan zenbatetsitako hazkuntzak moderatuagoak izan dira, % 5,9 eta % 3,4koak, hurrenez hurren.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2022/I

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARANTZA	-15,0	1,8	-7,1	7,8	4,6	2,6	-1,8
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-11,2	8,5	-1,1	30,2	5,5	4,3	6,5
Manufaktura-industria	-11,6	9,2	-0,7	33,1	5,9	3,8	5,9
ERAIKUNTZA	-8,2	2,4	-2,4	11,5	1,3	0,5	1,9
ZERBITZUAK	-9,0	5,0	-3,5	15,5	4,0	5,4	6,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-18,1	8,9	-5,5	26,1	6,1	12,2	11,0
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzueta jarduerak	1,6	2,5	1,6	3,1	2,6	2,6	2,9
-Gainerako zerbitzuak	-8,6	4,1	-5,0	17,3	3,5	3,1	4,8
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	-9,5	5,6	-2,9	18,4	4,2	4,8	5,8
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	-13,6	5,3	-3,0	20,4	1,9	3,7	3,9
BARNE-PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	-9,9	5,6	-2,9	18,6	3,9	4,7	5,7

Urtaoren eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2022ko Ekainaren 3a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eraikuntzaren sektoreak ere aurreko hiruhilekoan baino hazkuntza handiagoa izan du. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, jarduerak % 1,9 egin du gora, eta jardueraren hazkuntza, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 2,5koa izan da.

Zerbitzuen sektorearen jarduera globala, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, % 6,0 igo dela zenbatesten da. Urte arteko hazkuntza hori, neurri handi batean, 2021eko lehen hiruhilekoan itxita egon ziren edo jarduera mugatuta izan zuten eta, hiruhileko honetan, jarduera-mailari berriro heldu ahal izan dioten pertsonentzako zerbitzueta –aisia-jarduerari eta turismo-sektoreari lotutakoak– oinarritzen da. Urteko lehen hiruhilekoak, 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,1eko igoera ekarri du.

Zerbitzuen portaera ez da homogeneoa izan adarren arabera, azken hiruhileko honetan. **Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren** adarrak balio erantsiaren % 11,0ko igoera izan du aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean, eta % 1,2 hazi da aurreko hiruhilekoaren aldean.

Jarduera horietatik, ostalaritza (bai ostatu-zerbitzuak bai jatetxe-zerbitzuak) izan da portaera onena izan duena.

Modu berean, urte arteko aurrerapena areagotu egin da **Gainerako zerbitzuak** adarrean; hartan sartzen dira higiezin jarduerak, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, komunikazioa, finantza- eta aseguru-zerbitzuak eta pertsonentzako zerbitzuak. Urte arteko % 4,8ko hazkuntza izan du. Berriz ere dira pertsonentzako zerbitzuak, kultura-, aisia- eta kirol-jarduerei dagokienez, hiruhileko honetan hazkuntza gehien eragin dutenak, 2021eko hiruhileko berarekin alderatuta, pandemiak jarduera horietako asko mugatu dituela kontuan hartuta. 2021eko laugarren hiruhilekoaren aldean, berriz, % 1,0eko beherakada zenbatetsi da.

Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak adarrean, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 0,9 aurrera egin ondoren, eutsi egin zaio balio erantsiaren hazkuntza jarraituari; urte arteko hazkuntza-tasa % 2,9koa izan da.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2022/I

	2021				2022
	I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA	20,1	10,8	-7,2	-16,9	15,0
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,4	0,9	-0,2	2,1	3,5
Manufaktura-industria	1,3	1,9	-0,3	0,9	3,4
ERAIKUNTZA	1,0	-2,9	1,5	0,9	2,5
ZERBITZUAK	-0,5	2,1	2,3	1,4	0,1
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	2,2	9,3	-2,7	3,2	1,2
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	0,5	1,5	0,6	-0,1	0,9
-Gainerako zerbitzuak	-2,7	-1,9	6,8	1,1	-1,0
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	0,2	1,6	1,6	1,4	1,1
PRODUKTUEN GAIKEKO ZERGA GARBIAK	-0,2	8,1	-4,6	0,7	0,1
BARNE-PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,2	2,2	1,0	1,3	1,0

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2022ko Ekainaren 3a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Sektore agregatu gehien urte arteko portaera positiboaren eraginez, Euskal AEko **balio erantsia** aurreko hiruhilekoan baino erritmo azkarragoan igo da, eta % 5,8ra iritsi da. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balio erantsi gordinaren suspertzea % 1,1ekoa da, azken hiruhilekoetan izan den bilakaera positiboaren ildotik.

Barne-eskariaren aldetik, portaera bestelakoa izan da; urte arteko hazkuntza estimatua aurreko hiruhilekoan baino moderatuagoa izan da, % 2,9koa. Kanpo-sektorearen ekarpena, beraz, positiboa izan da 2021eko lehen hiruhilekoan.

Etxeetako eta EZIAGEtako (kontsumo pribatua) **amaierako kontsumoaren gastuak** urte arteko % 3,1eko hazkuntza izan du; aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,2 egin du behera.

Bestalde, **Administrazio publikoen amaierako kontsumoaren gastuaren** (kontsumo publikoa) hazkuntza moteldu egin da, aurreko hiruhilekoekin alderatuta; urte arteko hazkuntza % 0,6koa izan da. Era berean, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bilakaerak % 3,5eko jaitsiera izan du.

Kontsumo publikoaren eta pribatuaren baterako bilakaerak **Amaierako kontsumoaren gastuaren** % 2,6ko urte arteko hazkuntza zehazten du, zeinak, 2021eko azken hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,9ko jaitsiera baitakar.

Kapital-eraketa gordinen (Inbertsioa), urte arteko igoera % 3,9koa izan da, aurreko hiruhilekoan zenbatetsitakoa (% 4,3) baino baxuagoa, baina aurrerapena izan da, % 1,5ekoa, 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. **Ekipoko ondasunen** inbertsioak % 6,6ko igoera izan du, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta; alegia, hiruhilekoen arteko terminoetan, % 1,2ko suspertzea izan du.

Gainerako kapital-eraketa gordinen, zeina eraikuntzako ondasunen bilakaerari lotuago baitago, urte arteko hazkuntza moderatuagoa izan da, % 2,2koa (aurreko hiruhilekoan zenbatetsitako hazkuntza bera), eta % 1,7ko aurrerapena zenbatetsi da aurreko hiruhilekoaren aldean.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2022/I

	2020	2021	2021				2022
			I	II	III	IV	I
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	-8,9	4,8	-2,5	18,1	2,4	2,7	2,6
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	-12,4	5,3	-3,7	22,6	2,1	3,0	3,1
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	3,8	3,0	1,6	5,2	3,5	1,7	0,6
KAPITALAREN OSAKETA GORDINA	-11,7	6,3	-1,3	21,4	3,7	4,3	3,9
Kapital finkoaren eraketa gordinak ekipo-ondasunetan	-12,9	12,8	1,9	41,3	7,6	7,5	6,6
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	-11,0	2,6	-3,2	11,2	1,5	2,2	2,2
BARNE-ESKARIA	-9,6	5,1	-2,2	18,9	2,7	3,1	2,9
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-16,1	11,8	-2,4	30,1	12,5	11,1	13,6
ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	-15,4	10,8	-1,4	29,8	10,2	8,1	8,9
BARNE-PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	-9,9	5,6	-2,9	18,6	3,9	4,7	5,7

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2022ko Ekainaren 3a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Barneko eskaria Azken kontsumoko gastuak eta Kapitalaren eraketa gordinak eratzen dute, eta urteko lehen hiruhilekoan urte arteko % 2,9ko igoera izan du. Hazkuntza hori BPG-ko zenbatetsitakoaren azpitik dago (% 5,7); beraz, **Kanpo-sektorearen** ekarpena positiboa izan da urteko lehen hiruhileko honetan. Ondasun eta zerbitzuen **esportazioek** % 13,6 egin dute gora, urte arteko terminoetan, eta **Inportazioek** baino intentsitate handiagoz (% 8,9 egin du gora). **Kanpo-saldoak**, beraz, ekarpen positiboa egin dio Euskal AEko ekonomiaren urte arteko bilakaerari.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2022/I

	2021				2022
	I	II	III	IV	I
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	-0,8	6,1	-3,2	0,8	-0,9
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	-0,3	7,1	-3,9	0,4	-0,2
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	-2,4	3,0	-0,9	2,1	-3,5
KAPITALAREN OSAKETA GORDINA	1,8	-1,7	-1,2	5,4	1,5
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	2,1	1,6	-5,8	10,1	1,2
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	1,7	-3,7	1,8	2,5	1,7
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	4,0	3,2	1,4	2,0	6,3
ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN IMPORTAZIOAK	3,3	6,4	-4,4	2,9	4,0
BARNE-PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,2	2,2	1,0	1,3	1,0

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2022ko Ekainaren 3a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegu-mailei dagokienez (**Dedikazio osoaren baliokide diren lanpostuetan** neurtuta), enpleguak, oro har, % 5,0 egin du gora, 2021. urteko lehen hiruhilekoaren aldean; nahiz eta % 0,9 egin duen gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Hori horrela, gogorarazi behar da lanpostuaren definizioak, Kontuen Sistema Europarraren (KSE) arabera, haren zenbaketan aldi baterako lan egiten ez duten baina haien lanpostuarekin – bermearekin edo berriro lanean hasteko datari buruzko akordioarekin, esaterako ABEEEn kasuak – lotura formala duten pertsonak uzten dituela kanpoan.

Lehen sektoreak enpleguaren % 0,4ko beherakada izan du, bai urte arteko terminoetan, 2021eko lehen hiruhilekoaren aldean, bai hiruhilekoen arteko terminoetan. Industrian, lanpostuen urte arteko hazkuntza % 2,6koa izan da, eta aurreko hiruhilekoko zifra baino % 0,8 altuagoa izan da. Eraikuntzan, enpleguaren bilakaera ere positiboa izan da urte arteko terminoetan (% 3,4ko igoera), baina, hiruhilekoen arteko terminoetan, portaera negatiboa izan da (% 1,5eko jaitsiera). Azkenik, Zerbitzuen sektorean, dedikazio osoaren baliokideak diren lanpostuen kopuruak gora egin du, bai urte arteko terminoetan (% 5,9ko igoera), bai hiruhilekoen artean (% 1,1).

Lurralde Historikoetako BPGren bilakaerari dagokionez, **2022ko lehen hiruhilekoan**, Arabak urte arteko % 5,5eko hazkuntza izan du; Gipuzkoak, % 5,6koa, eta Bizkaiak, % 5,7koa. 2021eko azken hiruhilekoarekin alderatuta, Arabako BPG izan da portaera onena izan duena, % 1,2 egin baitu gora; Bizkaian, % 1,1 egin du gora eta Gipuzkoan, % 0,9.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62